

Hiletak eta garapena

Ni hiltzen naizenean, ez ehorts elizan kantu zaharrak garapena izan du: Donostiako Udala areto apropos bila dabil, herritarrek hileta laikoak antola ahal ditzaten. Ongi iruditzen zait, kristaua naizen aldetik ere. Bakoitzak bere hilak egokien deritzon eran agurtzeko modua izatea elkarbizitza mailaren neurri ona da eta.

Hobe legoke kristau komunitateek euren elizak zabalduko balituzte eginkizun horietarako ere. Badira eliza moderno askotxo, non tradizio kristauaren apaingarri gutxi dagoen, eta bi funtzioetarako aise egoki litezkeen. Orain gure auzoko elize-tan ez dago bake apur baten bila sartzerik, turista zaratsuez beteta daudelako. Garapen haxe iruditzen zait niri desegokia.

Hileta erlijiosoek ere garapena behar lukete: laikotasunari tartea utzi. Erlijiosoaren hautua egin arren, familiek ez dute ukatzen azken agurraren adiera soziala. Gainera Gipuzkoako azken apaiz gazte-karka aldrak sarri garapen teologiko lotsagarriaz burutzen ohi ditu zeremoniak. Entzundako sermoi baten haria: "Inork ez du ukatzen arima hilezkorra denik (horixe ezjakintasuna). Baina gure fedearen berezitasuna haxe da: hezur haragitan berpiztuko garela sinestea. Juan ezagutu dugun bezalaxe, berdin



Jose Ignazio Ansorena

MUSIKARIA ETA TXISTULARIA

Hileta erlijiosoek ere garapena behar lukete: laikotasunari tartea utzi. Erlijiosoaren hautua egin arren, familiek ez dute ukatzen azken agurraren adiera soziala

-berdin, piztuko da azken egunean". Horri jarraiki hogeita piku minutuko saioa bota zuen delinkuenteak. Fededun izateko babu-plasta izan behar dela pentsarazi nahi zigun nonbait. Nola piztuko da Juan, hamabi urteko galtza motxetan edo zahartzaroko makuluaren laguntzaz?

Pertsona asko aztoratu omen ditu *Sapiens* liburuak. Utzita irakurri dut amerikar kutsuko *best-seller* erdi zientifiko-tranposoa: garapen zientifikoa-ren ondorioz, etorkizunean ez dugu hiletarik beharko, hilezkorak izango garelako. Gertatzekotan, boteretsuen pribilegioa izango da. Horretan ez da garapenik: behekoak betiko legean hilko gara.

Utzita irakurri dudan beste liburua *Patria* da. Fernando Arámburu ikasle ohiak idatzia. Irakurterraza eta eskasa, lore eta ohore mordoa bildu duen arren. Horren gainean telesaila garatzekotan dabilta, baina aktore protagonista euskalduna lortzea zail gertatzen ari zaie. *Patria* jarri nahi lukete batzuek ikastetxeetan material didaktiko gisan, *Herenegun* proiektuaren orde. Fernando ikasleak hamasei urtez zituen obsesio berberak agertzen ditu liburuan. Ez du garapen handirik izan.

Gure zirkua uda honetako poz handia izan da. Iker Galarzak eta konpainiak garatutako ekimena arrakastatsu gertatu da. Merezki ere bai. Apustu egin dute eta haur eta helduen barreak, arreta, harridura lortu. Bejondeiela. Barreak ez du hiletarik behar. Hilezko-rra baita. ■

GUZTION LIBURUAK,
BIDEOAK, AUDIOAK...
GUZTIONTZAT



HARPIDETU



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

www.booktegi.eus